elizalde HERRI ESKOLA

INFORMAZIO ORRIA

Murrizketei eta LOMCEri ez!

Zenbakia: 1 Astea: 2020-09-11

ESKOLAKO OHARRAK

ONGI ETORRIA

Udako oporrak amaitu dira, eta ikasturte berria hasi dugu. Ongi etorria eman nahi dizuegu 2020-2021 ikasturtera. Aurreko 2019/2020 ikasturtea benetan berezia izan zen COVID19a dela eta. Horregatik, orain inoiz baino gehiago, eskolako ateak zabalik daude, zuen kezkak argitu eta zuen seme-alaben beharrei ahalik eta ongien erantzuteko.

BABESGABETASUN-ZANTZUAK JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: haurrak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea) eskolan uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela, hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek edo tutore legalek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari.

ARROPA

Dakizuen bezala, gobernuz kanpoko eragile ezberdinekin lan egiten dugu (Gurutze Gorria, El Watan, Caritas edo Elikagaien Bankua), horregatik eta beste arrazoi batzuengatik eskola jasangarria gara. Ikasturte hasi den honetan, aurreko ikasturtean gure ikasleek galdu zuten arropa guztia jaso dugu. Iraila bukatu arte, eskolako atezainaren sarreran edukiko dugu, bertatik pasa eta berreskuratu dezakezue. Ondoren, gobernuz kanpoko erakundeei deituko diegu arropa hori jaso dezaten.

EUSKARA

2020-2021 Ikasturte honetan ere Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak emango ditu. Informatu eta egizu beste askok bezala, hobetu euskara! Eskaera egiteko EPEA: 2020ko urriaren 1etik 31ra. Informazio gehiago Oiartzungo Udaleko ***Euskara Zerbitzuan: 943493842/ euskara@oiartzun.eus***

Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www. elizalde.eus

NOTAS DE LA ESCUELA

BIENVENIDA

Han terminado las vacaciones de verano, y hemos dado comienzo al nuevo curso. Queremos daros la bienvenida al curso 2020-2021. El curso 2019/2020 fue excepcional debido al COVID19, y ahora más que nunca, las puertas de la escuela están abiertas, para poder responder lo mejor posible a las necesidades de vuestros hijos e hijas, o cualquier duda que tengáis.

OBLIGACIÓN DE INFORMAR SOBRE LOS MENORES DESPROTEGIDOS.

Esta escuela informa lo siguiente a todas las familias: según la ley de protección del menor del Gobierno Vasco (18 de febrero 3/2005) si en la escuela se tiene constancia de que algún alumno o alumna esté en una situación de desprotección; es decir, si se piensa que los tutores legales del alumno/a no cumplen adecuadamente sus funciones, la escuela informará de dicha situación a los servicios sociales, tal y como obliga la ley anteriormente mencionada. En caso de que eso ocurra, se pondrá en conocimiento de los tutores legales.

ROPA

Como sabéis, somos una escuela sostenible, por ello, trabajamos con diferentes organizaciones no benéficas, tales como El Banco de Alimentos de gipuzkoa, la Cruz Roja, El Watan o Cáritas. Dentro de este proyecto, la ropa que lleva meses en la escuela y que no es reclamada por nadie, suele ser recogida por estas organizaciones. Por ello, queremos recordar desde estas líneas, que hay mucha ropa todavía en los percheros de la escuela y que se puede pasar a recoger hasta finales de septiembre.

EUSKARA

Este curso 2020-2021 también se darán ayudas para aprender o mejorar el euskera. Infórmate y haz como otros muchos, ¡**aprende euskera gratis**!" Plazo de solicitud: del 1 al 31 de octubre de 2020. Más información en el Departemento de Euskara del Ayuntamiento de Oiartzun: 943 493842 / euskara@oiartzun.eus

Más información en: www.elizalde.eus y www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es